



## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Edozein erakunde edo enpresa hastean, hainbat baliabide behar izaten dira honi hasiera bat emateko eta ondoren jarraitu ahal izateko. Izan ere, beharrezkoak izango ditugun baliabideak argi izatea garrantzitsua da hainbat helburu lortzeko: balio-proposamenaren eskaintza garatzeko esaterako edota bezeroengana iristeko eta haiekin harremanak izateko; baita diru-sarrerak sortzeko ere. Baliabide horiek askotarikoak dira: fisikoak, intelektualak, giza baliabideak... Eta horien barruan baliabide asko daude. Horregatik, gure enpresa hasi aurretik, oso garrantzitsua da identifikatzea zein motatako baliabideak beharko ditugun, honela lana kudeatu ahal izateko.

Aplikazioa burutzeko leku apropos eta eroso bat beharko degu, eta horretarako, bulego bat alokatuko dugu. Bertan garatuko dugu gure aplikazioa, eta gainera, ordenagailu moderno batzuk beharko ditugu gure aplikazioaren oinarri informatikoa osatzeko. Bestalde, gure aplikazioak azpiegitura informatikoa eduki beharko du, sistema informatikoak, mintegiak eta online salmentak aurrera egin dezan.




Aplikazioa aurrera eramateko giza baliabideak beharrezkoak dira, gure enpresaren kudeaketa disziplinatua izan dadin. Produktuaren oinarria sormena, ezagutza eta gaitasun komertzialak izango direnez, enpresako kide bakoitzak rol bat izango du. Enpresaren funtzionamendu egokirako eta gure balio-proposamena behar bezala garatzeko, bakoitzaren gaitasunak eta orain arte eduki dugun lan egiteko modua abiapuntutzat hartuta aukeratu ditugu rol horiek. Gure aplikazioaren eta proiektuaren gidaria eta burua Hur izango da, berak denon lanak kudeatuko ditu eta azkeneko berrikusketa egingo du. Sormenari dagokionean, aplikazioaren diseinua eta logoa egiteaz arduratuko dena Iraitz izango da, izan ere, bere indarguneetako bat dela adierazi zuen orain bi hilabete egin genuen testak. Bestalde, Olaia eta Maialen izango dira gaitasun komertzialetan lan egingo dutenak, hau da, beraiek izango dira produktua jendeari saltzeaz eta jendea erakartzeaz arduratuko direnak.

Gure aplikazioaren beste oinarri garrantzitsu bat baliabide intelektualak dira. Aplikazioak egile-eskubideak edukiko ditu. Hau da, gure aplikazioan bezeroak

beraien ibilbideak jarriko dituzte, ibilaldiaren zailtasunarekin, luzerarekin... horrela, aplikazioaren ibilbideak handitzen joateko. Bezeroek ezartzen dituzten ibilbide horiek google maps-i salduko dizkiogu beraien aplikazioa osatzeko. Baina gure aplikazioan jartzen dituzten ibilaldi horiek egile-eskubideak edukiko dituzte, beraz gure baimenik gabe ezingo dituzte ibilbideak hartu eta beraien aplikazioa osatu. Hori egiteko gurekin kontaktuan jarri beharko dute eta guk utzi beharko dizkiegu, izan ere, guk ditugu ibilbide horien egile-eskubideak. Horregatik google maps-ek ordainduko digu gure bezeroen ibilbideengatik.

Gure aplikazioaren kudeaketa dela eta, kostua murriztea da helburua. Batzuetan, merkaturako hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen digu. Gure ekonomia beste enpresen interesen arabera izango da, beraien erakartzeko arrazoia gure aplikazioaren erabiltzaile kopurua izango da. Irabazi iturrien atalean ikusi genuen bezala, diru sarrerak aplikazioa garatzen doan bitartean handitzen joango dira. Diru sarrera hauek kanpoko enpresen publizitatearen bidez lortuko ditugu. Ekonomikoki kudeaketa egunean eramango den prozesua izango da, horretaz "Lanbrora" enpresako kide den Markel Otaegui arduratuko da. Astearen bukaeran beste kideei adieraziz kostu totalak.



Gure enpresaren funtzionamenduaz taldekide guztiak arduratuko gara. Bakoitza enpresaren sektore bateko buru izateaz arduratuko da. Enpresa garatzeko eta berritzen joateko ideia berrietan esku hartzea eta ideia horiek aplikazioan txertatzea izango da Iraitzen ardura, berarekin batera hainbat



langile izango ditu lanean. Bestetik ekonomiaren finantzaketaz Markel arduratuko da, enpresak dituen diru sarrerak, irabaziak eta kostuak kudeatzeko lana izango du, eta guztiak bezala bere azpitik bere langile bat izango du lana errazteko. Enpresatik kanpo dauden pertsonak erakartzeko publizitatearen erabilera egingo dugunez, Olaia izango da sektore horretako



buru, beste enpresekin kontaktuan jarriko da eta funtsezko sozietateak modu egokian egiteaz arduratuko da. Gure ideia bezeroetara modu argian iristeko, Maialen komertzioaz arduratuko da. Erabiltzaileekin harremanetan jarri, erabiltzaileak erakarri eta gure enpresa ezagutzera eramatea izango da bere lana. Azkenik guzti hau bilduko duen arduraduna Hur

izango da. Hur enpresa guztiko arloak bategiteaz, eta aldi berean enpresaren buru izateaz arduratuko da. Arlo guztietako informazioa egoki egoteaz arduratuko da eta enpresa bilerak kudeatuko dituen izango da.

Giza baliabide eta baliabide intelektualei dagokienez, talde oso orekatua garela iruditzen zaigu, bakoitzari rol bat emanda ongi lan egiten dugula ikusi dugulako azken hilabeteotan. Nahiz eta hasieran ezarri genituen rola ez datozen guztiz bat hasieran jarritakoekin, orain arte oso ongi funtzionatu dugu, denok baitugu egiteko garrantzitsu bat taldearentzat, eta egiteko horiek gure izateko eran oinarraituta daude.

Laburbilduz, baliabide fisikoei dagokienez ordenagailuz betetako bulego bat alokatuko dugu aplikazioa garatzen hasteko, eta azpiegitura informatikoa beharko dugu, online bidez salduko baitugu aplikazioa. Giza baliabideen kasuan, lana ongi kudeatuko dugu gure gaitasunen arabera, eta baliabide intelektualei dagokienez, egile-eskubideak ezarriko ditugu diru sarrerak lortzeko bertatik. Azkenik, aplikazioaren kudeaketaren kostua murrizteaz ere arduratuko gara. Beraz, hau dena, alde aurretik definituta dugunez, aplikazioari hasiera bat emateko gaitasuna edukiko dugu, eta baliabide guztiak edukiko ditugu honek aurrera egin dezan.